

BIZKAIEREAREN AURKAKO ZENTSURA EUSKALDUNA

ZER aldizkarian ezeze, beste egunkari eta aldizkarietan be eritxi artikulua eta txitean-pitean bialdu daroadaz, argitaratu daiezan. Aspaldi-aspaldian artu neban erabagia artikulua eta bizkaieraz idaztea, bizkaieraz idatzita argitaratu daiezan, atan be. Esan bear dot, barrez, orain arte oztopo andi barik izan dirala onartu eta argitaratuak euron an-or emenka. Inoz idaztitan zitelarena egin badot be, egundo ez dot erabili era zatarrrik gura izan dodana egokiro, neurri eta eran aditzen emoteko.

Au alan dala eta, jorrailean argitaratu eusten azken eritxi artikulua GARA eta BERRIA egunkariak. Argitaratu bai, baina BERRIA egunkariak ez nik idatzitako eran, bizkaieraz, aren itzulpena eginda baino, batuaz, argitaratu be. Deitu neutsen, deitu be, ea zer dala-eta ori itzulpenori, ori eginda artikulua nortasun barik, kolorga lotu zana. Bertako "izkuntza zuzendariaren" erabagia izan ei zan, aurki. Urrengoan olangorik ez egiteko eskatu neutsen eta erantzun otza artu neban.

Alan bada, maiatzaren 10ean, gauzak bide onera etorrita egongo ziralakoan, beerago irakurriko dozue bialdu neban argitaratua izan eiten. Baina, itzulpenik barrian ez egiteko eta egoan moduan argitaratuteko eskatuta. Oraingoan baina, ez BERRIAK ezta GARAK be ez dabe artikulua argitaratu. Murtik esan be ez. Ain okerra da antxe eskatu neban? Ala bizkaieraz idatzita dagoalako ez dabe argitaratu? Baiezkoan nago. Arrazoi biokaitik izan dalakoa daukat. Susmo txarra artuta nabil. Ez ete da izan bizkaiera bein betiko baztertuteko zentsura politiko-ideologikoa or atzean ostuta dagoana? Kontu au guztiau naturalidade osoz ikusi eta erabili bearrean, edabide batzuetako komisario linguistikoen ebatzien pentzudan gabiz mendebaldeko euskeradunok, aurki.


Ez daukagu bearleku makala bizkaieradun koitaduok geurea diglosia bikotx eskergatik onik atarateko. Aaleko aaleginak egin bearko doguz euskal komisario linguistikoen atzarretatik askatu eta bizirik irauteko, geurean, etxean. Baina, orixe berberorixe da izan komundade aborigenen zoritxarra: norberaren etxean arrotz!

Aor, urrengo dozue bada, artikulua onen zergaitia edo pekatua:

ZUEK DOZUE BERBEA

Igazko zezeilaren 20tik Bizkaiko komundade euskaldunaren lagun asko umezurtz gagoz. Umezurtz itxi ginduezan. Izan be, 2002ko maiatzaren 11an apal baina itxaropentsu jaio zana, indarraren arrazoa dala-eta, il egin euskuen igaz. Euskaldunon Egunkariak egunero ekarten eban Bizkaia geigarria betiko ostu jakun. Alantxe da? Betiko ostu jaku? Eta alan bada, ezin batu ete leitekez, barrian, orduan alkartu ziran indarrak galdutako proiektu orreri biztu eragiteko? Nire uste apalean, Bizkaiko lurraldeko komundade euskaldunarentzako mesederako proiektua izan zan a, eta ezelan be ez kaltegarria, inondik inora be. Gure geure berbeta nortasunaren zuztarretan sendotu eta sakonduten aaleginduten zan eta proiektu nazionalaren lagungarri zein osogarri izateko bidean egoan. Orain, oster, umezurtz segiduten dogula emoten deust. Noz artean?

Iniki MARTIARTU
BAKIO



Larrabetzu'ko Salbador
Bateleizan.



Mungia'ko San Anton
Bateleizan.



Mungia'ko Magdalena
deunaren Bateleizan.

LEIO BISIGOTIKOAK (800N. URTEKOAK)

*Asturias'tik etorriak
(Ikusi 14n. orr.)*